

LABek larritzat jotzen du mahai negoziatzailearen berri hedabideen bidez jaso izana, eta ardura eskatzen dio Hezkuntza Sailari

Hezkuntza sailburuak prentsa agerraldian egindako adierazpenen bidez izan du LABek mahai negoziatzailearen berri, eta hori larritzat jotzen du, baita balizko proposamen berri baterako edukiak ahoz eta medioen bidez zabaltzea ere. Sailburuak egindako adierazpenen ondoren heldu zaio LABi deialdi ofiziala.

Mahaiari daukan garrantzia kentzen ari zaio Hezkuntza Saila, eta sindikatuetikiko eta langileetikiko errespetu faltaz jokatzeko. Izan ere, negoziaketarako eremua baztertu, dagokion balioa kendu eta prentsara eramanez du negoziaketa, hilabete honetarako hitzeman zuen egutegia bete gabe utzi ostean eta sindikatuarekin inongo harremanik izan gabe. Gaurko adierazpenak hezkuntza komunitateak mobilizatzeko deia egin ondoren eta bost greba berriren erregistroa egin ostean datoz.

LABek hainbatetan adierazi izan duen bezala, negoziaketa erreal baterako ezinbestekoa da idatzizko proposamen baten gainean lan egitea, akordioetara heldu nahi bada.

Beraz, LABek bere parte hartzea aztertuko du, argi baitu negoziaketarako proposamena medioen bitartez egitea, aurrez sindikatuarekin inolako idatzizko proposamenik helarazi gabe, marketing ariketa bat dela.

Bestalde, urtariletik maiatzara bitarte luzatu den gatazka luze honetan arduraz jokatzeko eskatzen dio LABek Hezkuntza sailburuari.